

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 30a

641. zenbakia

UDALBATZA/ BAko kideek udaletxean ordezkaritza izatea aldarrikatu zuten astelehenean

Eztabaidan jarraitzen dute BAK eta alkateak

EDU MENDIBIL

Asteleheneko udalbatzan, eskaera eta galderen txandan, eztabaida etorri zen Bergara Aurrerako kideak eta Victoria Gallastegi alkatearen artean. Bergara Aurrerak udalean ordezkaritza izatea aldarrikatu zuen.

BAko Jesus Mari Garitanok zera esan zuen: "Urte eta erdi gertatzen da legealdia amaitzeko eta gauzak ez dira ezer aldatu ez duzelako pausorik eman. Oso eroso zaudete Aznarren aginduak betetz. Konponbiderako bide bat proposatu genuen, bai-

na ez da ezer egin. Hau ez da udal demokratikoa".

Victoriano Gallastegi alkateak zera erantzun zion: "Hemen ez da lapurreta politikorik, egoera hau ez dugulako guk martxan jarri. Auzi hau Legebiltzarren landu dugun bakarrak gara eta neurri batean zuek zarete egoera honen errudunak". Garitano sutan jarri zen hau entzutean, horrelakorik ez zuela onartzen esanez. Mikel Eguren (BA) "lapurreta politikoren" erruduntzat jo zituen udalbatzako kideak.

ZINEMA ARETOA

Bestalde, beste hainbat gairen inguruan galderak egin zituzten

BAko kideek. Besteak beste, zinema aretoaren gainean galdetu zuen Maite Guridik. Gallastegi alkateak argitu zuenez, "zinema aretoa ez du Udalak itxi. Negozio pribatua zuen, Udalaren partetik dirulaguntza jasotzen zuena. Gaiarekin arduratuta gaude eta Zabalotegiko aretoa egokitzeo eta Seminarioan auditorioa egiteko lanean ari gara".

Aurreko astean Aranerrek botatako zuhaitzen gainean, berriz, aparkalekuaren arazoari irtenbidea eman beharra dagoela eta aparkalekuak egiteko zuhaitz horiek botatzea ezinbestekoa zela argitu zuen alkateak astelehenean.



Argazkian, asteleheneko udalbatzako irudi bat



Urteagako lanen lehen fasea amaitzear

Amaitzear dago Urteagako lanen lehenbiziko fasea. Avaya eta Geofisa enpresek dihardute trenbide-plataforma zaharrari eusteko lanetan. Lehen fasearen aurrekontua, 1,5 milioi eurokoa da. Bigarren fasean, berriz, mazelaren beste zatiari eusteko lanak egingo dira, 2,5 milioi euroko aurrekontuarekin. Hala ere, lanak oraindik adjudikatzeke daude.

LABUR

Perretxikoen gaineko hitzaldia egunean kultura etxean, Jardun elkartearen eskutik

Jardunek antolatuta, Luis Ezenarrok eta Jose Mari Larrañagak perretxikoen gaineko hitzaldia egingo dute egunean, hilaren 6an, kultura etxean, 19:00etan. Mikologiari eskainitako jardunaldien barruan urriaren 8an irteera egingo da. Argibideak: 943 76 36 61.

Ekonomi jardueren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik

Ekonomi jardueren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 10era arte dago zabalik. Erreziboak helbideratu gabe dituzten zergadunek ondorengo egunetan jasoko dute ordainketa egiteko agiria. Agiri hori urriaren 31 baino lehen jasotzen ez baduzue, kontu-hartzaileko bulegotik (943 77 91 64) pasa zaitezke.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



GAZTELU
BURDINKI DENDA


Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)
PSIKOLOGIA

- HARREMAN ARAZOAK: bikotearekin, familiarekin edo kideekin
- UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ESTRESA
- ELIKADURA ARAZOAK
- AUTOESTIMA

Miriam Mujika 676 61 70 55
Aurrera edifizioa • Urtaile kalea-1 • EIBAR



Langileentzako formakuntza ikastaroak

Ikastaro guztiak %100 diruz lagunduta
Euskal Herriko Lanbide kualifikazioen sistematik lotzen zaion moduloen katalogoa

FABRIKAZIO MEKANIKOKO ARLOA

| | |
|---|----|
| • Z.K.K. tornuan programazioa | 40 |
| • Z.K.K. tornuan programazioa eta exekuzioa | 46 |
| • Z.K.K. fresagailuan programazioa | 40 |
| • Z.K.K. fresagailu programazio eta exekuzioa | 46 |
| • CNC sarpen bidezko elektrohigadurarén prestaketa eta programazioa | 30 |
| • CNC hari bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa | 30 |
| • Abiadura handiko mekanizatua | 50 |
| • CAD - CAM. UNIGRAPHIC | 40 |
| • Mekanika diseinua. 3D Modelaketa. Modelatu eta Planoak | 30 |
| SOLID WORKS/SOLID EDGE. | |
| • Mekanika diseinua. 3D Multzoak. | 30 |
| SOLID WORKS/SOLID EDGE | |
| • Marrazketa 2D irudikapen grafikoa. (AUTOCAD) | 40 |
| • Planoen irakurketa | 50 |
| • Saiakuntza Sunstizaileak eta ez Sunstizaileak | 40 |
| • Elektrodo eta erdiautomatikorekin Soldadura | 55 |
| • Lan arriskuen prebentzioa. Oinarrizko maila | 40 |
| • Tratamendu Termikoak eta Metalografia | 60 |
| • Egiaztapen dimentsionala | 30 |
| • Egiaztapen tridimensionalak. COSMOS | 40 |

| | |
|------------------------|----|
| • Fabrikazio-prozesuak | 30 |
| • Hidraulika | 36 |
| • Fabrikazio-prozesuak | 60 |

ELEKTRIZITATE ARLOA

| | |
|--|-----|
| • Oinarrizko Automatismo Programagarriak. S7-200 | 35 |
| • Automatismo Programagarri aurreratuak. S7-200. | 40 |
| • Muntaia Domotikoak. I. Maila. Sistema zentralizatuak | 40 |
| • Muntaia Domotikoak. II. Maila deszentralizatuak. Bus EIB | 60 |
| • Elektrotekniko automatismoak | 40 |
| • Automatismo pneumatikoak eta elektropneumatikoak | 40 |
| • Baimendutako instalatzaile karneta ateratzera zuzendua. | |
| Urte beteko lan esperientzia | 40 |
| • Baimendutako instalatzaile karneta ateratzera zuzendua. | |
| Esperientziarik gabe. | 100 |

ADMINISTRARITZA ETA INFORMATIKA ARLOA

| | |
|--|----|
| • Informatika-aplikazioak administrazio arloan | |
| (Windows, Word, Excel, eta posta elektronikoa) | 80 |
| • Dokumentuen elaborazio informatikoaren kudeaketa | |
| (Word-Excel-Access, maila aurreratu) | 75 |
| • Nominak eta Gizarte Segurantzak | 60 |



Ikastaro guztiak astelehenetik ostegunera emango dira. Erreleboak kontuan izanik, ikastaroak egokitu egin daitezke Orduetgia 18:00-20:30ra. Ikastaroen hasiera matrikularen arabera izango da

Ibargarai 1 • Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40 • Faxa: 943 76 38 41

Posta-e: imaltuna@sarenet.es • www.imaltuna.com



BERRIKUNTZAK:

- **PROGRAMAZIOA**
Etenik gabeko programazioa
(13:15 / 00:15)
- **INFORMATIBOAK**
Orduoro eta inor baino lehenago
(laurden gutxi guztietan)

SAIO BERRIAK:

- **16 MM:** Film laburren saioa
- **MOTZEAN:** Herritarrei elkarrizketak
- **DIDJERIDU:** Gazteendako saioa



Ikustekoa!

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria



PRESOAK/ Antxon Sasiainek kartzela zigorra beteko du Frantzian urriaren 3an eta Espainiara estraditatu egingo dute

Sasiainen aldeko mozioa onartu zuen Udalbatzak, EAJ-EA eta Aralarren botoekin

E.M.

Antxon Sasiain bergararraren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak astelehenean. Etxerategi aurkeztutako mozioa EAJ-EA eta Aralarren botoekin onartu zen. Besteak beste, Sasiainen askatasuna eta estraditatu ez izatea jasotzen da onartutako testuan.

Sasiain Bergararik ihes egin beharrean aurkitu zen 1998an, 2002an atxilotu eta espetxeratu zutelarik. Hain zuzen ere, astelehenean, urriaren 3an, beteko du kartzela zigorra Frantzian, Normandian, Val de Reuil espetxean. Udalbatzak onartutako testuan Sasiainen askatasuna eskatzen dute, "bere zigorra bete du eta espainiar estatura estraditatu ez izatea eskatzen dugu, izan ere tortura eta tratu txarren arriskua hor dago". Era berean, bere eskubideak errespetatzea eta Sasiain eta beste ber-

garar preso eta iheslarien Euskal Herriratzea eskatzen dute. Azkenik, "ezinbesteko eragile politikoak diren heinean, euskal presoek bake prozesuan parte hartzea" eskatzen dute.

MANIFESTAZIOA ASTELEHENEAN

Bergara Aurrera eta Etxerategi kideak pozik azaldu ziren mozioa onartzeagatik. Hala ere, Mikel Egurennek zera adierazi zuen: "Onartzeaz gain, ea betetzen den mozioan jasotakoa. Iazko uztailean Sasiain gose greban egon zenean elkartasuna adierazteko mozioa onartu zen, baina ez daki gu han jasotako guztia betetzeko ahaleginak egin ziren". Alkateak gestio guztiak egin zirela eta onartutakoa martxan jarri behar dela erantzun zion.

Astean zehar elkarretaratzeak egin dituzte Etxerategiok. Astelehenean, urriaren 3an, manifestazioa deitu dute San Martin plazan, 19:00etan.



Etxerategi deituta, elkarretaratzeak izan dira astean zehar San Martin plazan. Astelehenerako manifestazioa deitu dute.

UNED ikastetxeak 28 unibertsitate titulazio eskaintzen ditu aurten

E.M.

Begarako UNED ikastetxeak 28 unibertsitate titulazio eskaintzen ditu aurtengo ikasturtean. Horrez gain, 25 urtetik gorakoendako unibertsitaterako sarre- ra ikastaroa, masterrak, graduatu ondoko ikastaroak, etxeko laguntzaile diploma, idazle eskola edota liburutegi laguntzaile eskola egiteko aukera dago, besteak beste.

AURRE MATRIKULA ZABALIK

Argibidetarako edo aurre matrikula egiteko 943 76 90 33 telefonora edo www.uned.es/ca-bergara web gunera jo dezakezue. Joan den ustean 2.000 ikasle inguru izan zituen UNEDek, batez beste 45 urteko adinarekin.



Ikasturte berrirako aurre matrikula egiteko epea zabalik dago jadanik.

LABUR

Akulu AEK euskaltegian eta Udal Euskaltegian ikasturte berrirako matrikula epea zabalik

Ikasturte berrirako matrikula epea zabalik dago Udal Euskaltegian zein Akulu AEK euskaltegian. Bietan ere maila guztiak eskaintzen dira. Argibidetarako ondoko telefonoetara jo dezakezue: 943 76 05 18 (Akulu AEK) edo 943 76 44 53 (Udal Euskaltegia).

Odol ateratzea egingo dute Seminarioan hurrengo eguaztenean, ohiko ordutegian

Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, odol ateratzea egingo dute eguaztenean, urriaren 5ean, Seminarioan, 18:30ean hasita. Jendeari parte hartzeko dei egin diote. Hurrengo odol ateratzea urriaren 26an izango da, ohiko ordutegian.

Informatika hasiera, argazkilaritza eta edizio ikastaroak erretiratuen egoitzan

Erretiratuen egoitzako informatika gelan hainbat ikastaro izango dira urritik azaro erdialdera: informatika hasiera, argazkilaritza eta edizioa. Izenematea erretiratuen egoitzan egin daiteke. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian.

SANTOS



Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak orokorrean

• Pintura industrial

• Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA



Irrintzi kafetegia


Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Ganbara

TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75



San Martin ikastetxe aldera dagoen atearen atzean jarriko dute mini estadioa.

KIROLDEGIA/ Jarduera askotarako mini estadiorako Udalaren dirulaguntza jaso du BKEK

UEFA erakundearen mini estadioa Agorrosinen

E.M.

UEFA Europako futbol erakundeak mini estadio bat oparitu dio Bergara Kirol Elkarteari. UEFAren 50. urteurrena dela eta, Espainiako Estatuan horrelako 40 mini estadio jarriko dituzte eta Gipuzkoara helduko den bakarra Agorrosingo izango da.

Instalazio hauen kostua UEFAk ordaintzen badu ere, onartzen duen erakundearen kontura dira ezartze lanak, 6.968 euroko aurrekontuarekin. Hori dela eta, Bergara Kirol Elkartek kopuru horrengatik dirulaguntza eskatu zuen eta Udalak onartu egin du eskaera, hainbat baldintzarekin: instalazioaren erabilera eta beste hainbat zehaztapen jasoko dituen hitzarmena sinatuko da Bergara Kirol Elkartearen eta

Udalaren artean. Bestalde, mini estadioaren jabetza Bergara Kirol Elkartearena izango da eta instalazioaren mantentze lanak Udalak egingo ditu. Gauean izan ezik, egun guztian zehar izango da zabalik mini estadioa.

HAINBAT JARDUERA

Jarduera askotarako instalazio berriak 21x10 m-ko neurriak izango ditu eta belar artifizialekoa izango da. Hesz inguratuta egongo da eta, besteak beste, areto fut-

bola, saskibaloia, eskubaloia, tenisa, boleibola eta bestelako kirolak egin ahal izango dira bertan. Ekipamenduak 40.000 euro inguruko aurrekontua dauka eta Udalak emandako dirulaguntza garraio lanak eta instalazio lanak ordaintzeko bideratuko da.

GIPUZKOAKO BAKARRA

Bergara KEk Gipuzkoako Futbol Federazioaren bitartez egin zuen mini estadioa jaso ahal izateko eskaera. Azkenean, UEFA erakundeak baimena eman du mini estadio horietako bat Gipuzkoara ekartzeko. Esan bezala, Espainiako Estatuan horrelako 40 mini estadio jarriko dituzte eta Bergarako izango da Gipuzkoako bakarra. Lehenbizi egokitze lanak egingo dira San Martin aldera dagoen atearren atzealdean eta mini estadioa udazkenean martxan izatea espero da.

*Instalazio berriak
21x10 m-ko
neurriak ditu
eta belar
artifizialekoa da*

Bergara-Amaikak Bat bihar, zapatua, Agorrosinen

E.M.

Orain arteko bi partiduak irabazi dituzten Bergara eta Amaikak Bat taldeak aurrez aurre izango dira bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:00etan. Debarrekin eta bergararrekin batera, Mundarro, Zumaiaiko eta Pedrusko dira lidergoan, seina punturrekin.

Bergarak 0-4 irabazi zuen aurreko zapatuan, Seguran. Imanol Cabanillasek, Martin Ibañezek, Aritz Agirrek eta Eloy Crespok egin zituzten mahoneroen

golak. Bihar, lidergoan sendotzeko aukera izango dute Josu Zubiaren mutilek.

BESTE HIRU PARTIDU ZAPATUAN

Ipintzan beste hiru partidu jokatuko dira zapatuan: lehen infantil mailako taldeak Anaitasunaren aurka jokatuko du, 10:00etan; bigarren kadete mailako taldeak Ikasberri hartuko du, 11:30ean eta, azkenik, lehen gazte mailako taldeak Union Txikiren aurka neurtuko ditu indarrak, 18:00etan.



Bergarak bost gol egin eta batere ez du jaso orain arteko bi partiduetan.

LABUR

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako bi partidu jokatuko dira gaur Udal Pilotalekuan

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako lau partidu jokatuko dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:30ean.

Bigarren kadete mailako bikoteak Aurrera Sayaz taldeko ordezkarien aurka jokatuko du eta jarraian bigarren mailako nagusiek Beasaingo Murumendi taldeko bikotearen aurka jokatuko dute. Gainerako bikoteek etxetik kanpo jokatuko dute aste buruan.

Igeriketa ikastaroak maila guztietan eta igeriketa egokituko eskolak ezinduendako

Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatuta, urritik abendura bitartean igeriketa ikastaroak izango dira Agorrosingo igerilekuan. Haur, gazte edo nagusiei zuzendutako ikastaroak dira.

Bestalde, ezgaitasunen bat dutenei zuzendutako igeriketa egokituko ikastaroa eskainiko dira. Argibidetarako Kirol Zerbitzura edo 943 77 91 67 telefonora jo dezakezue.

**JAUJA
KIROLAK**
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskoziuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialia
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan
Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

**GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES**
BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

ESKOLA KIROLA/ Kalitatea hobetzeko asmoz, Eskola Kiroleko Kontseilua eratuko dute

Eskola Kirolean elkarlanean arituko dira Udala, eskolak eta kirol elkarteak

E.M.

Eskola Kirolean denboraldi berria aurkeztu zuten eguaztenean, prentsa aurrean. Nobedade gisa, Udala, kirol elkarteak eta Bergarako ikastetxeak elkarlanean arituko dira Eskola Kirola martxan jartzeko. Kalitatea hobetzea da helburua.

Iratxe Aranburu udal kirol teknikariarekin batera, Victoriano Gallastegi alkatea, Begoña Garmendia San Martin ikastetxeko zuzendaria, Dorleta Mendibil Aranzadi Ikastolako zuzendari pedagogikoa, eta Mariaren Lagundiko Gotzon Iparragirre izan ziren aurkezpenean. Gallastegi alkateak azpimarratu zuenez, "Udalak beti izan du Eskola Kirolean inguruan politika soziala eta gure seme-alabek kirola praktikatzeko ohitura hartzen badute, onurak begi bistan daude".

ESKOLA KIROLEKO KONTSEILUA

Eskola Kiroleko egitura indartu asmoz, Bergarako Eskola Kiroleko Kontseilua osatu dute: Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastola, San Martin ikastetxea, Ipintza eta Mariaren Lagundiko zuzendariarekin batera, gurasoen elkarteetako ordezkariak eta Udalekoek hartuko dute parte. Batzorde teknikoa ere eratuko dute, kirol zikloetako udal teknikariarekin eta enpresa bateko kirol hezitzaileekin.



Eskola Kiroleko denboraldi berria aurkeztu zuten eguaztenean, udaletxean.

Eskola Kirolean, klase orduetatik kanpoko kirol jarduerak (aste bukaeretan partiduak jokatuz), astean zehar izaten dituzten igeriketa eskolak eta uda kanpaina sartzen dira. Eskolan egiten den lanaren jarraipena izatea

lortu nahi da, kirolaren bitartez giza baloreak landuz edo euskararen erabilera bultzatuz.

KUOTA BERRIAK

Ikasturte berrirako kuota berriak izango dira: horrela,

kirol bakar bat egiteagatik 3,30 euro hileroko (30 euro ikasturte osoan) ordaindu beharko da eta kirol aniztasuna aukeratzen dutenek, berriz, 6,60 euroko kuota izango dute hileroko (ikasturte osoko kuota 60 eurokoa).

LABUR

Profesional mailako pilota jaialdia domekan

Domekan, urriaren 2an, profesional mailako pilota jaialdia izango da Bergarako Udal Pilotalekuan, 17:00etan. Eugik eta Galartza VI.ak Chafee eta Elkororen aurka jokatuko dute; Gonzalez eta Apeztegiak Xala eta Nalda III.aren aurka eta azkenik Larralde-Auxkin eta Berasaluze IX.a Urberuaga bikoteak izango dira aurrez aurre.

LABEGARAIETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN


- 09:30: Mongatxurak-K. Piperrak. Fit
- 10:30: Fit Auto.-Belengua. Monga.
- 11:30: Kalaveras-Paco Cia. Egurre
- 12:30: Santana Rivers-Egurre. Paco C.
- 18:00: Pirulota.-Irubide. Brescia
- 19:00: Brescia-Makamaki. Pirulo.

ZAPATUAN, KANPOAN

- 09:30: Pub Irish-All Blacks. Teatekh
- 10:30: Teatekh-Agirrebeña. All Blacks
- 16:00: SDTNT-Guri Guri. Errotagain
- 17:00: Errotagain-Txakurra. A Ze Fla.
- 18:00: A Ze Flaxa-Niu Tim. Txakurra

ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

ezpeleta

Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

Helbide berria

Urbitate Pol. industrial, U1 sekzioa, 12 Pabilioia
Eroski hipermerkatu ondoan
48220 ABADINO
Tel.: 94 621 58 10
Faxa: 94 620 28 15



DIODO LASERRA



Gorputz osoko laser depilazioa

- Hiru hilabete behin
- Tratamendua bukatzeko lau edo sei saio
- Medikua egina

GALDETU KONPROMISORIK GABE

Barrenkale,35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

UDAZKEN KULTURALA/ Ekitaldi ugari izango da urritik abendura bitartean

Musika, ikus-entzunezkoak, erakusketak eta hitzaldiak udazkeneko egitarauan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udazkenean sartu berri garen honetan, herriko hainbat talderekin elkarlanean, Udazken Kulturala egitasmoa ipini du abian aurten ere Udaleko Kultura Sailak. Urritik abendura bitartean hainbat kultura ekitaldi izango dira herrian.

Musika klasikoak Udazken Kulturalaren egitarauko zati handi bat hartuko du. Bergarako Udal Musika Bandaren kontzertua izango da urriaren 16an, 12:30ean, Udal Pilotalekuan; bandakoek azaroaren 20an Santa Zezilia eguna ospatuko dute. Gabonen inguruan Aritzeta abesbatzarekin, Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin eta Bergarako Orfeoiekin ere kontzertu berezia egingo dute.

Bestalde, urriaren 22an Bergarako Orfeoiek *Afrika* ikuskizuna eskainiko du; eta 29an San Joxepe abesbatzak Santa Marina elizan abestuko du Errenteriako Maialen abesbatzakoekin.

Azarorako, Ainhoa Lopez eta Amaia Arberas sopranoen kantaldiak daude iragarrita.

Urriaren bakearen inguruko bi hitzaldi egongo dira. Lehena Jus-

Bergarako Orfeoiek *Afrika* ikuskizuna eskainiko du urriaren 22an.

ticia y Paz aldizkariko Patxi Meabek egingo du; eta bigarrena Mariano Ferrer kazetariak.

IKUS-ENTZUNEZKO ETA ERAKUSKETAK
Bi izango dira ikus-entzunezko emanaldiak. Urriaren 20an Aroz-

tegi aretoan Peruri buruzkoa eta abenduaren 28an Osintxuko ludotekan Nairobitarraren gainekoa.

Erakusketak kultura etxean egingo dituzte: kirol argazkiak; Juanjo Altunaren margoak; eta Bergarako pintoreen lanak ipi-

niko dituzte ikusgai hilabete hauetan barrena.

Umeendako ere ez da faltako ekitaldirik: jolasparkea, antzerkia eta pailazo eta magia ikuskizuna antolatu dituzte euredako Udazken Kulturalaren baitan.

Zabalik dago eskulan, zeramika eta pintura ikastaroetan izena emateko epea

I.A.

Eskulanetan abilak direnek hainbat aukera izango dituzte hemendik aurrera. BEKE eta Beart elkarteek eta Zeramika tailerrak ikastaroak antolatu dituzte, eta izena emateko epea zabalik dago.

Bergarako Emakumeen Kultur Elkarteak (BEKE), azken urteotako bideari jarraituz, eskulan ikastaroa ipiniko du abian. Koro Iraegi izango da irakaslea eta ikastaroan askotariko esku-

lanak egitea da asmoa. Besteak beste, egurrekin eta burdinarekin egingo dituzte lanak, eta baita margotu ere.

Urriaren hasi nahi dute; eta taldea zenbaterik osatuko duten jakiteko komeni zaie interesatuek lehenbailehen izena ematea honako telefono zenbaki hauetara deituta: 625 70 78 92 (Koro) edo 685 72 89 55 (Dorleta). Ondoren, izena eman dutenen artean adostuko dute saioak zein egun eta orduetan egin.

ZERAMIKA

Bestalde, Zabalotegiko dorreen azpiko aldean dagoen Simon Arrieta Zeramika tailerrak ikastaroa antolatu du. Urritik ekainera bitartean izango da ikastaroa eta astean lau orduz jardungo dute zaleek. Besteak beste, tornua erabiltzen, buztina modelatzen eta eskulturak egiten ikasiko dute bertaratzen direnek. Izena emateko honako telefono zenbakietara deitu beharko da: 626 92 04 13 edo 943 20 65 01.

PINTURA

Beart taldeak, berriz, bost eta 15 urte bitarteko ume eta gaztetxoendako pintura eta marrazketa ikastaroa egingo du. Urriaren leian hasi eta ekainaren 24ra bitarteko zapatu goizetan izango dira eskolak 10:00etatik 13:00etara bitartean. Oinarrizko marrazketa tekniketarik hasi eta koadroak nola margotu ikasiko dute. Izenematea zenbaki hauetara deituta egin daiteke: 653 71 53 82 (Mayra) edo 615 75 60 19 (Oihana).

LABUR

Azurren argazki erakusketa Ziripot tabernan

Euskal Boongi izenburupean argazki psikodelikoen erakusketa ipiniko du Azurrek Ziripot tabernan. Zaletasunez egindako argazki muntaiak urriaren 3tik 31ra bitartean egongo dira ikusgai.

Txapa Irratiaren bilera zapatuan gaztetxean

Bihar, zapatua, Txapa Irratiak deituta bilera izango da 12:00etan gaztetxean. Denboraldi berrirako programazioa gertatuko dute; beraz, saioaren bat egin nahi dutenek euren programaren berri eman beharko dute bileran. Bestalde, denboraldi berrirako asmoen gainean berba egingo dute bihar.

Rock kontzertua gaur gauean Jam aretoan

Gaur, egubakoitza, rock kontzertua izango da 22:00etan Jam aretoan. Deep Purple taldeko Glen Hughes baxu joleak eta Red Hot Chili Peppers taldeko batera joleak, Chad Smith-ek, jardungo dute, JJ Marsh-en gitarra eta Kjell Haraldson-en teklatura lagun dituztela. Kontzerturako sarrera 24 euro da.

Euskal Herriko historiaren gaineko bi hitzaldi

Bergarako Herri Mugimenduen eskutik, Herri Eskolak egitasmoa jarriko dute abian datorren astean. Euskal Herriko historia azaltzeko, urriaren 4an Txema Uriartek Frantziako Iraultzaz jardungo du; urriaren 6an, berriz, Gotzon Iparragirrek karlista eta libereleaz. Hitzaldiak kultur etxean izango dira 19:00etan.

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono. 761051
R.S.I. 209374 - 55
BERGARA

MINGAINARITIRAKA



Emilio Uzin

BERGARAKO TAILA ESKOLA ELKARTEKOA

Hamalau urte zituenetik Bergaran bizi den arren, getariarra dela ez du ahazten Emiliok; barru-barruan darama hori. Bere taila lanik kuttunena ere Getariako kalearena da. Biloba txikia zaintzea du gustukoan, erretiratu zenetik hona.

Egunean zenbat ordu pasatzen dituzu zizelarekin?
Zizelik ez dugu erabiltzen, formoiak eta gubiak erabiltzen ditugu. Egunean lau bat ordu ibiltzen naiz tailatzen.

Denbora luzea duzu, hortaz, libre.

Bai, erretiratuta nago-eta.

Zelako lanak egiten dituzu?

Orain, momentuan, koadroak egiten dihardut, baina denetik egiten dugu: argizaiolak, kutxak... Hori bai, eskulturak ez ditugu lantzen.

Ze egur duzu gustukoan?

Intxaurrea lantzeko egokiena da, nire ustez. Dena dela, egur mota asko erabiltzen ditugu: haritza, pagoa, lizarra, gerezia...

Nondik ateratzen duzu egurra?

Zerrategitik.

Egin duzun lanik kuttunena?

Getariako kale nagusiaren koadroa eta Bergarako Aumategi jau-regiaren irudia.

Egurra lantzeaz gain, denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Biloba txikia zaintzea.

Urtaro bat?

Udaberria.

Kolore bat?

Berdea.

Forma bat?

Aitona-amonen profilak egurrean tailatzeko oso irudi politak direla iruditzen zait.

Bergaran zer falta dugu?

Aparkalekuak bai, behintzat! Bestalde, gazteendako, batez ere, etxebizitza merkeak. Dena dela, zerrenda bat egiten hasiko banintz falta ditugun gauzekin...!

Eta Bergarako gauza onena?

Erramu Zapatuko azoka.

Bukatzeko, amets bat?

Bilobaren ezkontzara iristea.

AINZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

NURIA FERNANDEZ

33 URTE / HOTELEKO HARRERAKO ARDURADUNA / BURGOS

“Burgosen okerrena da egiten duen hotza, baina hemengo jendea oso jatorra da”

AINZANE IRIZAR

Orain dela zortzi urte joan zen Nuria Burgosera bizi izatera. Maitasunak eta lanak eraman zuen hara; izan ere, gaur bere senarra dena, Oscar, Burgosekoa da. Bestalde, hantxe lan on bat aurkitu zuen.

“Benidormen ezagutu nuen Oscar, oporretan. Bera Burgosekoa da, eta han gustuko lana aurkitu nuen, hantxe bizi izatea erabaki genuen”. Ordutik dihardu Nuria Tryp Fernan Gonzalez hotelean lanean; harrerako arduraduna da. “Turismo ikasketak egin nituen, eta nire ikasketekin lotuta dago lan hau; oso gustura nabil”, azaldu digu.

Hainbat bergararrekin egoteko aukera ere izan du bere lanari esker: “Gogoratzen dut behin bergarar bat Burgosen ezkondu zela eta 14 logela hartu zituzten bere senide eta lagunek gure hotelean. Ni zeharo pozik ibili nintzen egun haietan, nahiz eta ez nuen ia inor ezagutzen. Asko gustatzen zait Bergarako jendea ikustea Burgosen”.

“Ilusio handia egiten dit Burgosen Bergarako jendea ikusteak, nahiz eta ez ezagutu”

BI SEME-ALABA

Nuria eta Oscarrek bi seme-alaba dituzte: nagusienak, Ainarak, lau urte dauzka; txikiak, berriz, sei hilabete bete ditu eta Oscar du izena. “Lehenengoari neuk jarri nion izena, izen euskalduna, baina bigarrenarekin ez zidaten laga; Iker jarri nahi nion, baina, azkenean, aitaren izena jarri genion, Oscar”, azaldu digu Nuria. Argazkian ikus dezakegu Nuria bi umeekin.

HIRI HOTZA, BAINA GIRO ONEKOA

Segituan moldatu zen Nuria Burgoseko bizimodura. “Okerrena da hemen egiten duen hotza; aurreko urteko negua, esaterako, izu-


garria izan da”, diosku Nuria. “Hala ere, jendea oso jatorra da, ez dira batere hotzak, eta giroa ere oso polita da”, azaldu digu.

“Jende asko ibiltzen da kalean; asteburuetan, esaterako, ia laurak arte jendea poteoan ibiltzen da, kostatzen zaie etxeraztea”, jarraitzen du Nuria.

BISITA GUTXI BERGARARA

Ordu eta erdi edo bi orduko ibilbidea dago Bergara eta Burgos artean; ez da asko. Hala ere, kontatu digunez, geroago eta gutxiago etortzen da bisitan: “Izan ere, askotan, asteburuetan lan egin beharra izaten dut hotelean. Bestalde, umeekin asteburua pasatzera joatea ez da oso eroso; badirudi hilabete osorako goazela”. Gurasoak, berriz, lehen baino sarriagotan joaten zaizkio.

Etorkezunaren gainean galdetuta, argi dauzka gauzak Nuria; zera erantzun digu: “Oraingoz, behintzat, hementxe jarraituko dugu bizi izaten. Etorkezunean, eskaintza hobeak baldin badauzkagu beste nonbait, baliteke hemendik alde egitea”.




GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

BONOFOTOA

Errekara ematen duten etxe hauek ze auzunetan daude: Maduran, Zubiaurren ala Ozaetan?



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBEZIBAR



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

OLAIA ZALAKAINendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Olaia!
Galderaren erantzun zuzena: San Pedro elizakoak.



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Kas laranja edo limoia
2 litroko botila + 250 ml doan

1,01€

168 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

OÑATI
Orduko kantinerak eta erregina

Duela 38 urte atera zuten argazki hau, 1967ko San Migel jaietako danborrada nagusian. Orduko danborrada oso ezberdina izaten zen. Adibidez, erregina, kantinerak eta karrozak joaten ziren orduko danborrada nagusian. Erreginak garrantzi handia zuen eta danborradako talde guztiekin ateratzen zituen argazkiak: sukaldariek, danbor joleekin eta baita kantinerekin ere, argazkian ikusten denez. Hauexek dira 1967ko danborradako erregina eta kantinerak:

Goian, ezkerretik eskumara: Beatriz Goitia, Karmentxu Ezpeleta, Beatriz Idigoras eta Marisol Galdos.

Behean, ezkerretik hasita: Juanita Madinagoitia, M^a



Anjeles Azkarate, Pili Kortabarría (erregina), ezezaguna, Leonor Txopitea, Pili Ugalde eta M^a Karmen Mugartza.

Argazkia: Oñatiar bat

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 30
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15
- ZAPATUA, 1
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74
- DOMEKA, 2
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 3
ZABALA. Barrenkalea 25 943 76 16 87
- MARTITZENA, 4
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 5
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63
- EGUENA, 6
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRIAOK
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kirroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaitegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- URTE-MEZAK
- Santa Marina
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Mansa aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiki okindegi), Zurraidero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraia (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraia/Olabarrentik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00
eta 20:40.
- GERALEKUAK: Labegaraia, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Udazkenean sartu gara; sumatu duzu aldaketarik?




VIRTUDES GARCIA

Ez, nik ez dut inolako aldaketarik sumatzen, ez udazkenean ezta beste urtaroe-tan ere. Agian katarroren bat harrapatu izan dut, bai-na gorputzean eta umore-an berdin egoten naiz udan bezin udazkenean.



ARGI LARREATEGI

Aurten oraingoz ez dut ezer sumatu; agian oraindik eguraldi ona dagoelako izango da. Beste urte batzuetan tristeago egon izan naiz, eguzkirik ez dagoela-eta erritmo berri bati ekin behar diogula pentsatuz.



ANTONIO CURRAS

Pixka bat bai, sumatu dut. Adinean ere aurrera noa, eta urtaro batetik besterako aldaketak gehiago igartzen ditut orain. Urte-ak ez dira alferrik igaro, eta nekea ere gero eta handiagoa da.




ANA MARGARITA BURGOS

Bai, sumatu dut aldaketa, eta handia gainera. Kolonbiarra naiz eta han beti eguraldi bertsua egiten du. Hemen urtaroen arabera eguraldia ez ezik, arropa ere aldatzen da, eta baita jendearen umorea ere.



JON MUÑOZ

Ez dut aldaketarik sumatzen. Eguraldia aldatzen da, baina horrek ez dit askorik eragiten. Udazkenak duen txarrena da oporrak amaitu eta eskolara bueltatu behar dugula; baina gai-nontzean ez zait axola.



BERNABE MONDRAGON


Arbasoek zioten hostoak erortzeak eta berriz jaiotzeak bazuela eraginik gure aldar-tean, eta arrazoi zuten. Hala ere, nik ez dut aldaketarik sumatu. Motelago daudenengan eragina handiagoa dela uste dut.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK AUTO ILARAK Auto gidari batek bere haserrea azaldu digu martitzenean herri barruko trafikoan egindako aldaketengatik auto ilarak sortu zirelako. "Aurrez abisatu gabe egin zituzten aldaketak eta batzuek denbora luzez egon behar izan genuen zain; gainera, egun berean aldaketa bat baino gehiago egin zuten". /I.A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Leuntasuna
—Arek estau leuntasun askorik ibiltzen umiekin.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA

“ Niri langileak dauden tokian egotea gustatzen zait, mutilak dauden lekuan. Mutilak ez badute oporrik hartzen, nik ez dut oporrik hartzen. Hemen jendea ez zaio "aurrera" esan behar, "niri jarraitu" baizik. Eta nire mutilak horretara ohituta daude. Hori norberaren kultura da. Eta bai, orduak sartzen ditut, eta orain gehiago, hemen eta han. Hala ere, orain jende gaztea sartu dugu, eta ari dira ardurak hartzen. Horrek utziko dit denbora gehiago hona etortzeko. Gure familia enpresa mundukoa da antzinatik. Aitonak zapatak egiteko fabrika zeukan Bergaran; eta nik mutikotan aita ezagutu nuen tailer txiki batekin".
MIGUEL LAZPIUR/
Confefaskeko presidentea
'Berria'/05-09-25

HAUGIROA!

MINIMOA 7 °C
Egubakoitza, 23

MAXIMOA 30 °C
Eguena, 22

ASTEKO EURIA (l/m²) 2,6 L

| | Max. | Min. | Euria |
|-----------------|-------|-------|----------------------|
| Eguaztena, 21 | 25 °C | 7 °C | — l/m ² |
| Eguena, 22 | 30 °C | 7 °C | — l/m ² |
| Egubakoitza, 23 | 25 °C | 7 °C | 1 l/m ² |
| Zapatua, 24 | 28 °C | 14 °C | — l/m ² |
| Domeka, 25 | 20 °C | 15 °C | 1,2 l/m ² |
| Astelehena, 26 | 25 °C | 13 °C | — l/m ² |
| Martitzena, 27 | 27 °C | 10 °C | 0,4 l/m ² |

San Juan auzoan jasotako datuak

BERAIEKDIÑO/ Mikel Elkorobereibar



Ez dute maila ematen

Bergarra izatea gauza handia omen zen; Debagoienero herririk garrantzitsuena eta inportanteena omen ginen. Duela bi mende bertan izan genuen Seminarioan aurkikuntza ospetsuak egin ziren; industria ere garrantzitsua izan da; margolariak, musikariak...

Bergara, Debagoienero herririk garrantzitsuena izan da urtetan. Azken urteetan musikariek, margolariek, kirolariek... hor jarraitzen dute gure herriaren izena eta ospea goian mantentzen.

Ikusi besterik ez dago asteburuan ikusi dugun *Aupa Etxebeste!* filmean Asier Altuna zinema zuzendari bergarrak gure herriari eman dion ospe eta tratamendu bikaina.

Ez hori bakarrik; aste honetan bertan herriko kolektibo batzuk elkartuta Euskal Herriari buruz herri eskolak ematen hasiko dira Kultur Etxean; Udal artxibotik, hileko lehen martitzenetan antolatzen dituzten hitzaldi bikainak osatzeko.

Gaztetxekoen lana ere azpimarragarria da antolatzen dituzten ekitaldiek herriari bizitasuna ematen baitiete.

Horiez gain, Bergaran bada-gu lagunik urtetan horren aberatsa izan den herri dinamika bultzatzeko prest. Hori beharrezkoa baita, zeren Udaleko agintariek

“Poliki-poliki Bergara Debagoienero herrien artean, azpiegitura, azkena geratu da”

azken urteetan bultzatutako politika gero eta emaitza tristeagoak lagatzen ari da arlo guztietan.

Ez daukagu *Aupa Etxebeste!* filma Bergaran ikusteko aukerarik (Arrasaten eta Oñatin zinema aretoak Udalak bultzatutakoak dira), ez dau-

kagu liburutegi egokirik (zer pasatzen da Arrizurirekin?), zergatik da Bergara MUko unibertsitaterik ez duen Debagoienero herri bakarra?...

Poliki-poliki Bergara Debagoienero herrien artean, azpiegitura publikoei dagokienez, azkena geratu da; eta hori garbi daukat ez dela izan bergarrok ez dugulako lanik egin, baizik eta Udaleko agintariek ez dutelako herri honek merezi duen mailarik ematen.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 02
Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegui
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZTATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Begarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 30a / 258. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Alardearen Elkarteak jaurtigairik gabeko 34 eskopeta erosiko ditu

AINTZANE IRIZAR

Aurreko astean batzar garrantzitsua egin zuen Mairuaren Alardearen Elkarteak. Hantxe, besteak beste, erabaki zuten jaurtigairik gabeko 34 eskopeta erostea, datorren urteko jaiei begira. Bestalde, bazkide berriak egiten hasteko asmoa ere erakutsi dute.

Azkeneko urteotan geroago eta oztopo handiagoak izan dituzte alardearen antolatzaileek, eskopetak zirela eta. Orain, Espainiako Barne Ministerioak arau berri bat onartu du eskopeten jaurtigaiaren gainean. Horrela, jaurtigairik gabeko eskopetak erabili beharko dituzte Antzuolako jaian.

Aurreko astean Mairuaren Alardearen Elkarteak batzarra egin zuen eta hantxe erabaki zuten hurrengo urteko alardeari begira, 34 eskopeta berri erostea.

Bestalde, hizpide izan zuten lokalaren arazoa ere. Gaur egun, ez dute lokal propiorik eta horren beharra ikusten dute. Jose Luis Kortabarriak elkarteko presidentek azaldu digunez, Udalak gela bat laga die udaletxean bertan, baina, irtenbide hori behin behinekoa da.

Lokalaz gain, beste behar bat ere badute: zuzendaritza batzorde



Datorren urtetik aurrera, jaurtigai bako eskopetak erabiliko dituzte alardean.

derako informatikaz dakien pertsona euskalduna behar dute, idazkari lanak egiteko. Hortaz, interesa duenak zuzendaritzako kideren batengana jo dezake.

BAZKIDEAK EGITEN HASIKO DIRA

Azkenik, beste bi gai ere landu zituzten aurreko asteko batzarrean; batetik, elkartearen aurre-

Alardean parte hartzen duten herritarrengana joko dute, bazkide egin daitezten

kontua prestatzeko beharra ikusten dute.

Bestetik, elkartearen bazkide berriak egiteko nahia dute. Hasteko, alardean parte hartzen duten herritarrengana joko dute, bazkide egin daitezten. Geroago, gainerako herritarrengana helaraziko dute bazkide egiteko proposamen hori.

ONGIZATEA

Adin txikikoak euren kargu dituztenei dirulaguntzak emateko araudia onartu dute

A.I.

Ekainean, behin behineko onartu zituen Gobernu Batzordeak adin txikikoak euren kargu dituztenei dirulaguntzak emateko arauak. Alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko izaeraz onartuta geratu da araudi hori. Horixe argitaratu zuen aurreko astean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak.

Irailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dute onartu berri duten araudi berria. Araudi horrek adin txikikoak euren kargu dituztenei dirulaguntzak emateko arauak zehazten ditu.

Dirulaguntza horiek jasotzeko eskubidea dute egoera sozio-ekonomiko zaila dutenek eta adin txikikoak euren kargu dituzten Antzuolako herritarrek.

Hiru laguntza mota emango ditu Udalak: haurtzaindegi edo ikastetxeetara joateko laguntzak; jangelarako, eskolako materialerendako eta udalekuetarako laguntzak; eta aparteko laguntzak edo laguntza bereziak.

Laguntzak eskatzeko, Ongizateko teknikari Karmele Kortarengana jo dezakezue, udaletxean. Berak eskainiko dizue informazioa eta laguntza.

Beharrezko dokumentazioa Ongizateko teknikariari aurkeztu eta gero, honek txosten bat prestatzen du; behin eskaera behar bezala osatuta dagoenean eta dokumentazioa aurkeztuta, dirulaguntza zenbatekoa izango den kalkulatzeko da. Ondoren, Ongizateko Batzordeak onartu beharko du eskaera, eta azkenik, dirulaguntza emango zaio eskatzaileari.

LABUR

Garaipenarekin hasi dute denboraldia

Bigarren erregional mailako futbol taldeak ezinhobeto hasi du denboraldia. Zapatuan, Ezatlan, jokatu zuten denboraldiko lehendabiziko partidua, Aretxabaletaren aurka, 3 eta 2 irabazi zuten antzuolarrek. Horrela, sailkapenean lehen postuan jarri dira. Jon Gurutz Godoy izan zen, dudu barik, partiduko protagonista nagusia; izan ere, behar sartu zituen Antzuolaren hirugolak. Gazte mailako taldeak aldiz, 0 eta 4 galdu zuten Zestoaren aurka.

Kinto afaria antolatu dute urriaren 15erako

1961eko iraila eta 1962ko urria bitartean jaiotakoendako kinto afaria antolatu dute. Urriaren 15ean, zapatua, egiteko dute afaria, Antzuolan bertan, Leku-Berri jatetxean.

Izena eman nahi dutenak datozen egunotan eman beharko dute; bi pertsona hartu behar dira, eta izena emateko tera: Dina Mujikarengana eta Jabi Fernandezengana.

KIROLA

PARTIDUAK

PILOTA
Irailak 30 (Gipuzk. Kluben Txap.)
20:00: Olalde-Hernani (Gazteak)

FUTBOLA
Oharra: Oraingo asteburuan bai erregional mailako taldeak, bai gazte mailakoak, kanpoan jokatuko dituzte partiduak.

EMAITZAK

FUTBOLA
Antzuola 3 Aretxabaleta 2 (Ereg.)
Antzuola 0 Zestoa 4 (Gazteak)

PILOTA
Gipuzkoako Kluben Arto Txap.
Olalde-Intza (Nagusiak) 19-22
Lagunak-Olalde (Gazteak) 12-22

LEHIAKETA

Argazki lehiaketan, paperean nahiz formatu digitalean aurkeztu ahal izango ditugu lanak urriaren 27ra arte

Urtero bezala, Udaleko Kultura Sailak argazki lehiaketa antolatu du udazkenerako. Lehiaketaren oinarriak jakitera eman berri dituzte, eta lanak aurkezteko epea zabalik dago urriaren 27ra arte. Antzuolan jaio edo bizi den edonork parte hartu dezake.

Hiru mailatan antolatu dute argazki lehiaketa: lehen mailan, 14 urtera arteko neska-mutikoen lanak sartzen dira; bigarren mailan, 15 eta 25 urte bitartekoak eta hirugarren mailan, azkenik, 26 urtetik gorakoak.

Banatuak dituzten sariak ere mailaren arabera izango dira: lehen mailako kasuan,

denek jasoko dituzte sariak; bigarren eta hirugarren mailatan, berriz, 150 euro jasoko du irabazleak eta 90 euro bigarrenak.

LEHIAKETAREN BALDINTZAK

Argazki bakoitza bere euskarrian aurkeztu behar da; euskarri horren neurria izan behar da 30 x 40 zentimetrokoa, eta beige edo krema koloreko kartulina finez

egindakoa. Argazkiaren tamaina egilearen aukeran geratzen da.


Lanak koloretan nahiz zuri-beltzean aurkeztu daitezke, eta parte hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu.

DIGITALAREN GARAIA


Argazki digitalek geroago eta indar handiagoa duten honetan, horiek ere aurkeztu ahal izango ditugu lehiaketan. Honako helbide elektronikora bidali behar ko ditugu: kultura@antzuola.net. JPG formatuan bidali behar dira eta argazki bakoitzak, gehienez, 5 MB izan behar ditu.

Aipatzekoa da, bestalde, aurkeztu dituzten argazki guztiak erakusketa egingo dutela azaroko lehenengo bi asteburuetan.

Aurkezten dituzten argazki guztiak erakusketa egingo dute azaroko lehen bi asteburuetan



Mikel Lopezen *Intraurra* argazkiak irabazi zuen iazko lehiaketa nagusien mailan.



Aiherran egin zuten kanpaldia, Arrolak antolatuta

Aurreko asteburuan 28 antzuolar joan ziren Aiherrara eta kanpaldia egin zuten hantxe. Herriko Etxe osteko zelaian egin zuten kanpaldi hori; aihertarrek zelaia egokituta zeukaten antzuolarrak iritsi orduko. Zapatuan Baigura mendira egin zuten irteera eta iluntzean afari-merienda eman zieten aihertarrek. Domekan, berriz, ibilaldi neurtu baten parte hartu zuten. /A.I.

LABUR

Juan Luis Aranburu urretxuarra dugu kultura teknikari berria oraingo astetik

Amagoia Zubillaga arrasatearrak laga egin du Udaleko kultura, kirola eta hezkuntza teknikari lanpostua. Jone Larrañagaren ordezkia izan da Amagoia maiatzaren hasieratik.

Amagoiaren lanpostua betetzeko, teknikari berria dugu orain, Juan Luis Aranburu urretxuarra, hain zuzen ere. Oraingo astean bertan hasi da lanean, eta datorren urteko uztaiera arte jardungo du.



Autorik Gabeko Egunean, aurreko asteko egunean, auto istripua gertatu zen

Aurreko asteko egunean, irailak 22, istripua gertatu zen Kalebarrenen. Herritar bat bere autoan zihoan eta ez zen ohartu piboteak jarrita zeudenik; horrela, piboteok jo zituen autoarekin. Auto Gabeko Eguna zelako itxi zituzten Kalebarren, Herriko Plaza eta Buztinzuri. "Ez zegoen seinalerik, piboteak bakarrik, eta nik ez nekenez kalea itxita egon behar zenik eta gainera, eguzkiak bete-betean jotzen zidanez, ez nituen ikusi piboteak", azaldu digu istripua izan zuen herritarrek. Gidariak ez zuen minik hartu, baina, autoak kalte dezente jasan zituen golpeararen ondorioz.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko irailaren 30a / 240. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Garbiketaren ostean zuhaitzak landatuko dituzte Egoarbitzan

IRATI AGIRREAZALDEGI


Egoarbitza inguruan hainbat sail ditu Udalak. Horiek garbitu egin dituzte, belar eta sasiak kenduta. Bestalde, Maya ingurumen taldekoek ere zaborrak batu zituzten Egoarbitzan. Orain, zuhaitzak landatuko dituzte bertan. Asentziora ere egingo dute garbiketa.

Udalak, mendi inguruak zaintzeko asmoz, hainbat zuhaitz landatuko ditu datozen hilabeteetan Egoarbitzan.

Egoarbitzan Udalak dituen sailetan, alde batean, lehendik daude pagoak sartuta; baina batzuk falta direnez, horiek landatuko dituzte orain.

Beste aldeak suak erre zuen lehenengo, eta pagoak eta izeiak landatu zituzten arren, orain dela bi urte lehortu egin ziren. Sailok garbituta daude eta azaroa eta abendua bitartean pagoak eta pinuak sartuko dituzte bertan.

Bestalde, Asentziorako bidegurutzean ere bertako zuhaitzak (gaztainondoak, gereziendoak, pagoak...) daude landatuta, Udalaren lurretan. Inguru hori ere txukuntzeko asmoa du Udalak.



Domekan zabor pila bat batu zuten Maya ingurumen taldekoek Asentziora eta Egoarbitzan.

Lan horietarako udal aurrekontuetan 13.200 euroko kopurua aurreikusituta; baina Foru Aldunditik dirulaguntza jasoko dute.

ZABOR BILKETA

Udalak sasiak eta belarrak kendu baditu ere, Maya ingurumen taldea arduratu da Egoarbitzan eta Asentziora pilatutako zabo-

rrak batzeaz. Domekan hamalau laguneko talde bat elkartu eta denetarikozakarrak jaso zituzten. Batutakoa plazan ipini zuten jendeak ikus zezan.

HERRITARREN HITZA / Sebas Arantzabal • Langilea

Bertso urte olinpikoa

Badator bai, zaleontzat hain luze joan diren lau urteak pasatu ondoren, berriro Bertsolari Txapelketa Nagusia.

Aurtengo nobedadeen artean, finala, lehenengo aldiz Bizkaia aldean jokatu da; hain sonatua egin den BEC-en. Baina final horri begira, urriaren 9an hasita, abiatuko dira 30 bertsolari lehiatzaile, azken txapelketa sei finalistekin batera, finalerako txartel bila, abenduaren 18an, Andoniri eta Maialeni, hortzak erakusteko prest.

Baina azken urteetan majo aldatu da bertso mundua, sasoi batean, baserri girokoak ziren

kantatzen zutenak, entzule gehienak ere giro horretakoak zirelarik.

Aurtengo txapelketako 38 partaide horietatik, bakarren bat izango da baserri girokoa. Gehienak karrera bukatutakoak dira, eta 20tik 30 urteren tartean daudenak. Egaña da 44 urterekin, belaunaldi bateko azken alea. Emakumeen partaidetza ere aipatzekoa, hamar direlarik. Txirrita edo Uztapide berpiztuko balira



"Zale berriek bertso mundura hurbiltzeko aukera izaten dute"

sinesten ere lanak izango lituzkete.

Entzuleen arloan ere, aldaketak, bertsolarien aldaketekin batera joan dira. *Land Rober*-ak ziren lehen gehiengo saioetako aparkalekuetan, gaur egun gazteak dira nagusi entzuleen artean, gainera bertsolari berrien itxurako look-a dutenak.

Gaiak eta

kantatzeko erak ere aldatzen joan dira. Gaur egun bertsolariak prest egon behar dute

Irakeko suniten edo telebistako izarren paperean jartzeko; gainera gehienak neurri luzeetan kantatzeko gai dira.

Asko eztabaidatu da txapelketen alde onei eta txarrei buruz, baina ezin ukatu, bertsolari gazteentzat, aukera bakarrenetarikoa izaten dela, euren burua oholtza gainera agertzeko; gero hortik, plazak egiteko aukerak zabalitzen zaizkielarik. Gainera zale berriek bertso mundura hurbiltzeko aukera izaten dute. Kinielak hasita daude.

"Aldaketei buruz gaur, nola naizen jardun/Emakume bat baietz, bertsotan txapeldun".

LABUR

Irakaslea urriaren 26an egongo da KZgunean

Kultur etxean dagoen KZgunean ohiko ordutegian zabalitako egongo da urriaren 26an. Irakasleak, ordea, egun bakarren batean egingo du bisita datorren hilabetearen. Urriaren 26an, eguztina, egongo da bertan 16:30etik 20:00etara. Egun horretan mintegi bat izango da KZgunean. Komunikazio postu elektronikoaren bidez izenburupean ikastaro labur bat emango du irakasleak 18:00etatik 20:00etara bitartean. Interesatuak KZgunera joan behar dute eguneko bertan.

Urrian zineklubeko hiru saio izango dira Espaloian

Eguazteneroko hitzorduan jarraituz, urriaren hiru film emango dituzte Espaloian. Urriaren 5ean Berlinen urteko hartza irabazi zuen *Smoke on the Water* film amerikarra; 19an Taiwaneko *Comer, beber, amar* film frantsesa. Azkeneko film drama soziala da; film gogorra baina era berean interesgarria. Saio guztiak 21:30ean izango dira. Azaroan, bertan familiarendako zinema saioak hasiko dira domekan aurreratsaldeetan, 17:30ean.

Plazako dantzak ikasteko aukera egun gauetan

Plazan euskal dantzak egiteko ikasteko asmoz, 16 urtetik gorako 20 laguneko talde bat osatu dute herrian. Bost elkartarrek egingo dituzte irakasteko lanak eta oinarriko partaideak suak ikasiko dituzte gero, jaietan, erromerian, dantza egiteko. Saioak aste honetan bertan hasi dituzte eta abendura bitartean eguneko elkartzeko dira 20:00etan lehenengo eskola nazionala. Dantza bertan ikasi nahi duenik behar bertara azaldu besterik ez dago egin behar.

ELKARRIZKETA

AINHIZE GIRADO/AEROBIK IRAKASLEA

"Aerobikak badu zerbait harrapatu egiten duena; xarma berezia du"

I.A.

Aerobikeko eskolak aurki hasiko dira. Aurten irakasle berria izango dute izena ematen dutenek. Ainhize Girado arrasatearrak hainbat urtean dihardu aerobikean eta bere ezagutzan oinarrituta irakatsiko die elgetarrei.

Nola hasi zinen aerobikean?

15 urte nituela hasi nintzen aerobik egiten, eta gustatu egin zitzaidanez, 18 urterekin titulua atera nuen, eta ondoren eskolak ematen hasi nintzen. Betiere ikasketekin edo lanarekin uztartuz, gustuko dudalako jarduten dut honetan.

Zer da aerobiketiek gehien gustatzen zaizuna?


Gustuko dut kirola egiteko aukera emateaz gain, ongi pasatzeko modua ere eskaintzen duela. Musika ere gustuko dut eta aerobikean ezinbestekoa da.

Nolako eskolak emango dituzu Elgetan?

Astero dantza bat irakatsiko diet. Hutsetik hasi eta pixkanaka aurrera egingo dugu. Dantza errazak eta era berean entretenituak izango dira. Saio bakoitzaren aurretik berotze ariketak egingo ditugu eta amaieran abdominalak eta erlaxatzeko ariketak.

Zer lantzen da aerobikean?

Gorputz guztia mugitzen da, eta horrela izerdi asko ateratzen denez, osasunerako kirol egokia dela esan daiteke. Psikologikoki ere ona da. Kontzentrazioa asko dauka aerobikak. Beraz, lana edo ikasketak ahaztu eta deskonektatuz beste mundu baten sartze bidea ematen du.



UBANE MADERA


Zaila da aerobika?

Maila askotako ariketak daude; eta ni errazetik hasi eta zailtzen joango naiz; betiere ikasleek duten mailari erreparatuta.

Nola animatuko zenituzke elgetarrak aerobika egitera?

Elgetan ez naiz irakasle moduan ibili; baina beste herrie-

tako harrera ikusita Elgetan ere gimnasioa betetzea espero dut. Jendeari esango nioke etortzeko eta proba egiteko; gustuko badute jarraituko dute, eta bestela utzi. Hala ere, aerobikak badu zerbait harrapatu egiten duena. Beste gauza batzuk probatu ditut, baina aerobikak xarma berezia du.



Kilo eta erdiko onddo ederra

Alex Arantzabal elgetarrak 1.500 gramoko onddoa aurkitu du. Urtero ibiltzen da perretxikotan Alex, baina horrelakorik sekula batu gabekoa zen. Perretxikoa esku artean zuela zera esan zuen: "sano-sanoa da perretxikoa; ez dago barrutik hutsa, ezta apurtuta ere". Alexi familiarik datorkio perretxikotarako zaletasuna, aitak erakutsita. Perretxiko biltzaile on moduan ez digu toki sekretuen berri eman, baina inguruan pila bat daudela esan digu. Bere esanetan, "ez dago kilometro askorik egin beharrik perretxikoak topatzeko". /I.A.

KIROLA

Ozkarbiko pilotariak klubaren arteko lehiaren

I.A.

Pilotalekua obretan den arren, herriko pilotariak lanean jarraitzen dute. Gipuzkoako klubaren arteko txapelketan dihardute Ozkarbiko bost pilotari; hauetatik bi elgetarrak dira. Pilotari gaztetxoak, berriz, urrian dira hastekoak entrenamenduekin.

Gipuzkoako klubaren arteko txapelketa jokoan da eta Ozkarbiko pilotariak bertan dihardute; bikoteka eta bakarka ere, denak eskuz.

Elgetako Aitor Ubera eta Eñaut Arantzetarekin batera Bergarako Iker Azagirrek, Beasaingo Iñigo Iruretak eta Eskoriatzako Mikel Errartek jokatzeko Ozkarbiko taldean.

Banaka saio bakarra egin dute eta hura galdu; binaka, berriz, partidu bat galdu eta bestea irabazi.

Elgetako pilotalekua obretan dagoenez, Eskoriatzako eta Arrasateko pilotalekuekin egiten dituzte entrenamenduak; partiduak ere, etxean jokatu behar dituztenean, bi pilotaleku hauek eta Aretxabaletan edo Aramaion jokatu dituzte. Ozkarbiko Juan Luis Uberaren esanetan, "pilotalekua obretan izateak nahasmena sortzen du, baina gerorako hobea izango denez, zain egotea beste biderik ez dugu".

TXIKIAK URRIAN

Ozkarbiko txikienak, zortzi lagun, urrian hasiko dira; hauek Angiozarren eta Arrasaten egingo dituzte entrenamenduak.

IKASTAROAK

Joskintza eta eskulan ikastaroak hastear

I.A.

Urteroko bideari jarraituz, aurten ere ikasturtea hasi orduko eskulan ikastaroa egiteko aukera izango da. Bestalde, Espaloiak ikastaro berri baterako aukera eskainiko du. Josten ikasteko ikastaroa antolatu du urrirako. Bietan eman daiteke izena.

Eskulan ikastaroa urrian ipiniko dute abian; eta ohiko lekuan izango da, lehengo eskola nazionalan. Egurrarekin edo beirarekin egingo dituzte eskulanak eta altzariak zaharberritzen edo margotzen ere jardungo dute. Horretarako, bakoitzaren behar eta nahien arabera norberak eraman beharko du materiala.

Izena eman nahi duenak liburutegira jo beharko du edo Maria

Elena Eztenagari esan ikastaroan parte hartu nahi duela. Dagoen jende kopuruaren arabera antolatuko dituzte taldeak, eta eurekin adostuko dira ikastaroaren eguna eta ordutegia.

JOSTEN IKASI

Bestalde, Espaloiak josten ikasteko sarrera-ikastaroa antolatu du. Ikastaroa urrian egingo da, eta lau saio izango dira hilabetearen barrena: eguaztenetan 19:00etatik 21:00etara.

Joana Madinabeitia diseinugile oñatiarra arduratuko da eskulanak emateaz.

Berlaratzen direnei erakutsiko die praken barrenak hartzen; botoiak josten, oinarriko konponketak egiten... Izena emateko Espalaira jo behar da lehenbailehen; izan ere, ikasle kopurua mugatua da.



Eskulan ikastaroko lanekin erakusketa egingo dute ikasturte amaieran.

I.A.

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko irailaren 30a / 21. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Gertu daukazu mozorroa astelehenerako?

OIHANA ELORTZA


Egin beharrean erosi egiten dituzte gehienek mozorroa, baina jendea arduratzen da, nola edo hala, mozorrotuta kalera ateratzen Errosaixo biharamunean. Koadrilen arteko mozorro lehiaketa ere egongo da; aurten, 75 koadrilak eman dute izena.

Jaietako azken eguna izan arren, lehendabizikoa bezain indartsua izaten da Errosaixo biharamuna. Agian horregatik, kanpoan lan egiten duten askok egun hori hartzen dute jai. Dagoeneko gehienek egin edo lortu dute mozorroren bat astelehenean jantzi eta kalera ateratzeko.

75 KOADRILA LEHIAKETARAKO

Koadrila askok erosi egiten dituzte mozorroak, baina badaude mozorroa karroza eta guzti prestatzen dutenak ere, saria emateko modukoak.

Aurten ere egingo dute koadrilen arteko mozorro lehiaketa. Guztira, 75 koadrilak eman dute izena lehiaketa horretan parte hartzeko: gazteen kategorian 31 koadrila apuntatu dira eta nagusienean, berriz, 44. Kalean gora eta kalean behera ibili beharko dute koadrila horiek, jendeak ikusteko moduan. Sari banaketa udaletxean egingo dute, 13:00eta-



Batzuek karroza eta guzti prestatzen dute mozorroa.

*Gehienek egin
edo lortu dute
dagoeneko
mozorroren bat
astelehenerako*

tik 14:00etara, eta diru sariak egongo dira bi kategorietako mozorrorik onenendako.

PAELLA

Laixanek paella erraldoia egingo du aurten ere txosna-gunean koadrilen egunean. 500 txartel inguru saldu dituzte. 14:30ean hasiko dira paella banatzen.

BELATXARA GASOLINDEGIA

Belatxara gasolindegia zabalik dago berriro

O.E.

Lurzoru berria egiteko eta hodiak eta isurbideak garbitzeko egon da itxita Belatxara gasolindegia. Egin beharreko lanak bukatu dituzte dagoeneko eta egunean berriro zabaldu zuten.


Lurzoru berriarekin, egon zitezkeen gasolina filtrazioak ekidin gura izan dituzte. Gasolina gordetzeko lur azpiko upelak, hodiak eta isurbideak ere garbitu dituzte bide batez. Denda eta auto garbigailua ez dituzte berriro, lehen zeuden bezala utzi dituzte. Uztailaren 18an itxi zuten Bela-

txara gasolindegia aipatutako lanak egiteko, eta aste honetan zabaldu dute berriro.

HORNIGAILU BERRIAK

Konponketa eta garbiketa lanekin batera, erregai-hornigailu berriak jarri dituzte. Hiru daude orain, gasolindegia erdian hirurak. Lehen erregai mota bat ematen zuten bakoitzak eta orain erregai askotariko hornigailu bat ere jarri dute. Hornigailuen kopurua berrira ohitu beharko dute orain langileek eta bezeroek.

Aurrerantzean ere langileek emango dio erregaia bezeroari.



Lurzorua egin eta hodiak eta isurtegiak garbitu dituzte.

Betiko moduan eta tokian da Herri Eguna

Nekazarien Elkarteak antolatzen du Herri Eguna urtero. Joan den urtean 25 urte bete zituen eta bailara osoko baserritarak gonbidatu zituen Herri Egunera euren produktuak ekartzera. Aurten, ordea, betiko ohitura jarraitu dute eta herriko baserritarrek bakarrik jarriko dituzte postuak.

Ohiko kokalekuan egingo dute aurten ere Herri Eguna: Unibertsitate aurrean ganadua, frutak, barazkiak eta gazta lehiaketa eta klaustroan, artisauen lanak. Plazan, Gipuzkoako 22 sagardotegi egongo dira sagardoa zerbitzatzen eta Institutu aurreko Herriko Tabernaren ardura Ezker Abertzaleak izango du aurten ere.

Eguerdian herri bazkaria egingo dute Zubikoan eta herri kirolak arratsaldean.



Gipuzkoako 22 sagardotegi egongo dira plazan.

LABUR

Euskal piratei buruzko liburua kaleratuko du Jose Antonio Aspiazuk datorren hilean

Liburu berria kaleratuko du Jose Antonio Aspiazu idazleak datorren urrian. Euskal piratei buruzko liburua da. *Nuevas historias de corsarios vascos* da liburuaren izenburua eta Ttartalok argitaratuko du. *Historias de corsarios vascos* liburuaren jarraitpena da eta euskal pirateriak eman dituen izen asko jasotzen ditu.

Uztail eta abuztuko ur eta estolderiaren faktura ordaintzeko epea zabaldu dute

Uztail eta abuztuko hilabeteetako ur eta estolderiari dagozkien kopuruak ordaintzeko epea zabalik dago eta erreklamatzeko epea urriaren 5ean amaituko da. Epe barruan ordaintzen ez duten %20ko erreklama jarriko zaiela gogoratzen die Udalak zordunen eta kasua balitz, dagozkien berandutzako interesak gehituko zaiela. Azaroaren 4an amaituko da faktura horiek ordaintzeko epea.

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behea. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behea. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

TRIPALDI Enrike Justo Garate 1. 943 76 70 76

DIETISTAK

ALBERDI Mireia Olaran etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA
Ibargarai 44, BERGARA. 943-76 60 45 / 646 43 34 58

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXEIA Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

UNZUETA Irene San Martin Osasundegia. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irune Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

PODOLOGOAK

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behea. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN
Irala 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA
Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA
Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU
Irizar 5. 943 76 10 81

BERNARDINO MAIZTEGI
Irizar 5. 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
Zurradero 4. 943 76 53 53